

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa



Medio Ambiente, un compromiso con generaciones futuras

INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA 2016

*Ingurumen Sailburuordetza
2016ko urtarrila Ber. 0*

1.	SARRERA	3
2.	2016KO PROGRAMAREN HELBURUAK.....	3
	2.1.- 2016KO HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUAK.	5
	2.2.- 2016KO IKUSKAPEN-PROIEKTUAK: BERARIAZKO HELBURUAK ETA XEDEAK.	6
	1. HELBURUA: IPPC JARDUERETARAKO ARAUDIA JARRAITASUNEZ BETETZEA.	6
	2.2.1.- 01/2016 Proiektua: IPPC jardueren segimendua ikuskatzea	6
	2. HELBURUA: ARRISKU HANDIENA DUTEN ETA IPPC EZ DIREN JARDUEREN INGURUMEN-ARAUDIA BETETZEA.....	7
	2.2.2.- 02/2016 Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua.....	7
	2.2.3.- 03/2016 Proiektua: AKDJk eta ILEak ikuskatzea.....	8
	4. HELBURUA: HONDAKIN ETA LURZORUEN ARAUDIA BETETZEA.....	9
	2.2.4.- 04/2016 Proiektua: Hondakinak kudeaketa kontrolatzea	9
	2.2.5.- 2016/05 proiektua – Hondakinak lekuz aldatzea	9
	2.2.6.- 2016/06 proiektua - Zepa siderurgikoak kudeatzea.	10
	2.2.7.- 2016/07 proiektua – Lurzoruak: jarduerak ikuskatzea kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten edo jasaten dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako eremuetan.....	10
	5. HELBURUA: INGURUMEN-ARLOKO ARAZOAK KONPONTZEN EDO KONTROLATZEN LAGUNTZEA.....	11
	2.2.8.- 08/2016 Proiektua: 2.9.- Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean	11
	2.2.9.- 2016/09 proiektua: Pasaiaiko Badiaren leheneratzea sustatzea	11
	7. HELBURUA: ABISUAK (KEXAK, SALAKETAK, GORABEHERAK...) ETA PROGRAMATU GABEKO IKUSKAPENAK KUDEATZEA. ..	12
	2.2.10.- 2016/10 proiektua: Programatu gabeko abisuak eta ikuskatzeak kudeatzea.....	12
	9. HELBURUA: IKUSKAPEN-AHALMENA HANDITZEA.	13
	10. HELBURUA: IKUSKAPENAK EUROPAKO TESTUINGURUAREN ARABERA EGITEA.....	13
3.	GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.	13
4.	INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.....	13
5.	KONTROL-PLANA.	14
6.	INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.	14
7.	INGURUMEN-IKUSKAPENERAKO ETA -KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.	14

1. SARRERA

2016ko programa hau **2011-2018ko aldirako Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren** barruan dago. Plana egitean, kontuan hartu dira Ikuskapen Planaren helburu estrategikoak, eta berariazko proiektuen arabera ezarri da. Horretarako, berariazko hainbat helburu eta xede definitu dira. Era berean, programa honetan adierazleen eta jarraipenen ildo orokorrak zehaztu dira, baina laneko plan zehatza (bisitatu beharreko enpresak, ikuskari bakoitzaren zereginak, data zehatzak, eta abar) proiektuari dagokion dokumentu bakoitzean dago zehaztuta.

2. 2016KO PROGRAMAREN HELBURUAK

2016ko Ikuskapen eta Kontrolerako Programa honako funtsezko zutabe hauetan dago oinarrituta:

a) IPPC ekintzen jarraipena egiteko ikuskapenak¹.

Ikuskapen horien xedea da IPPC enpresek ingurumen-kudeaketaren eta -araudien betetze-maila handia izaten laguntzea, jardueren talde horretan erantzunkidetasun publiko-pribatuak administrazio-ahaleginak murriztu ditzan.

2016ko ahaleginek honako oinarri hauek izango dituzte:

- Arrisku-ebaluazioaren arabera programatutako ikuskapenak egitea.
- Betetze-maila baxuena duten, inguruan kalteak eragiten dituen edo arrisku-ahalmen handiena duten enpresetan berariazko jarraipena egitea.

b) IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea.

Aurreko ekitaldietan, kutsatzeko ahalmen handiena zuten talde honetako enpresak identifikatu ziren, bai eta ikuskapenak egiten hasi ere. Aurten metodologia berarekin jarraitzea proposatu da. Hala, garrantzitsua da aurreko ekitaldian ikuskatutako enpresetan jarraipena egitea, horietan dauden desbideratzeak zuzendu ahal izateko eta betetze-maila handitu ahal izateko.

c) Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren (AKDJ) eta Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) Ikuskapena.

Esparru honetan, helburua da atmosferara egindako emisioak ezarritako epean erregularizatu ez dituzten AKDJak identifikatzea eta dagozkion jarduketak abiaraztea arlo horretan indarrean dagoen araudiaren betetze-maila hobetzeko.

¹ Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko 16/2002 Legearen eta haren ondorengo aldaketen aplikazio-eremuko jarduerak.

Era berean, berriz ere ikuskatuko dira aireko emisioetan kontrol ofizial gehien egiten duten administrazioaren erakunde laguntzaileak, horien kalitatea bermatzeko.

d) Hondakinak kudeatzeko nahiz ekoizteko jarduerak eta lurzoruetan baimendutako esku-hartzeak kontrolatzea.

Honako hauek dira arlo horretan 2016ko programarako zehaztu diren helburuak: hondakin-mota batzuk –adibidez, erabiltzen ez diren ibilgailuak, zatikatzaileak, eraikuntza- eta eraiste-lanen hondakinak, zepak...– kudeaketa egokiaren kontrola bermatzeko kanpainak egitea, eta hondakinak mugaz bestaldera eramateko kontrolerako abiarazitako plana amaitzea.

Proiektu berria abiaraziko da. Helburua da kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan jasotako eremuetan baimendutako jarduerak betetzen direla egiaztatzea.

e) Ingurumen-arazoak konpontzen edo minimizatzen laguntzea.

IPPCren jarraipenerako ikuskapen-proiektuan arrisku handiagoa eta betetze-maila txikiagoa duten IPPC enpresetan berriazko jarraipena egiteko sistemarekin jarraitzen dute. Ekintzak eten ondoren hondakinak eta materialak kudeatzeko ezarritako proiektuak ez du hainbeste eragin ingurumenean; edonola ere, eutsi egin zaio, Pasaiaiko portuaren Ingurumen Ekintza Planaren eta programatu gabeko ikuskapenen proiektuko betetze-mailarekin batera.

Programatu gabeko ikuskapenek kexa, salaketa, gertaera edo istripuekin izango dute zerikusia. Horretarako, 24 orduko laguntza-zerbitzua egongo da abian, urtearen 365 egunetan, noiznahi egon dadin informazioa jasotzeko eta ebaluatzeko aukera, bai eta ingurumen-arriskuak edo kalteak ekiditeko komeni diren jarduerak hastekoa ere.

2.1.- 2016ko helburu estrategikoak eta proiektuak.

Taula honek 2015erako programatutako proiektuak jasotzen ditu, Ikuskapen eta Kontrolerako Planaren helburu estrategikoak garatzeko.

Planaren helburu estrategikoa	ERREFERENTZIA	PROIEKTUA	PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA
IPPCren ekintzak ikuskatzea (3.1.i atala)	2016/01	IPPC jardueren segimendua ikuskatzea	Arriskuen ebaluazioaren emaitzen arabera programatutako ikuskapenak Betetze-maila baxuena duten, ingurumenari gehien eragiten dioten edo arrisku handiena duten enpresen jarraipen espezifikoa IPPC jarduera berrien ikuskapena, abian jartzen direnetik urtebetetera
	2016/02	IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea	Aurreko urtean ikuskatutako enpresen betetze-maila areagotzea betetze-maila handira edo ertain-handira Ez-betetze esanguratsuak eta larriak desagarreratzea
IPPC ez diren arrisku handieneko jarduerak ikuskatzea (3.1.ii atala)	2016/03	AKDJK eta ILEak ikuskatzea	Ezarritako epeetan emisioak erregularizatu ez dituzten AKDJK identifikatzea. Jarduketak abiaraztea Atmosferara igorritako emisioetan emaitza positiboa duten ILEak ikuskatzea
	2016/04	Hondakinen kudeaketa kontrolatzea	Zatikatzailak kontrolatzea EEIak kontrolatzea: legez kanpoko kudeaketa-bideak identifikatzea eta kontrolatzea Balioa har dezaketen hondakinen eta hondakin problematikoen kudeaketa
Hondakinak kudeatzea (3.1.iv atala)	2016/05	Hondakinen tokialdaketa	Hondakinak lekuz aldatzeko ikuskapen-plana onartzea. Mugaz bestaldeko hondakinei dagokienez, 660/2014 EB Erregelamenduan ezarritakoa hartuko da kontuan
	2016/06	Zepa siderurgiko eta metalurgikoak kudeatzea	Zepa siderurgikoak eta metalurgikoak balioesteko baimendutako bideetara doazela ziurtatzea eta, hala ez bada, deuseztatzea
	2016/07	Lurzoruak: baimendutako jarduerak	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan jasotako kokapenetan lurzoruaren araudi-esparruan baimentzen diren jarduerak ikuskatzea
Ingurumen-arazoak (3.1.v atala)	2016/08	Hondakin arriskutsuak (HA) eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean	Jarduera bertan behera uztean, bertako hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea
	2016/09	Pasaiaiko Badiaren leheneratzea sustatzea	Pasaiaiko Badiaren ingurunean erakundeen arteko ingurumen-ekintzen planari jarraipena egitea
Abisuak/larrialdiak kudeatzea (3.1.vii atala)	2016/10	Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	Gorabeheretan eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko 24 orduko erantzun-zerbitzua Ikuskapen Zerbitzuaren erantzuna antolatzea Larrialdi Planen eta taktika operatiboen aurrean

Proiektu guztiak dokumentu batean egiten dira, egitura honekin:

1.	<i>Aurrekariak</i>
2.	<i>Proiektu mota</i>
3.	<i>Helburu espezifikoak eta xedeak</i>
4.	<i>Jarduera-plana</i>
5.	<i>Adierazleak</i>
6.	<i>Baliabideak</i>
7.	<i>Jarraipena</i>
8.	<i>Kronograma</i>
9.	<i>Eranskinak</i>

2.2.- 2016ko ikuskapen-proiektuak: Berariazko helburuak eta xedeak.

Jarraian, proiektuen berariazko helburuak eta xedeak zehazten dira, **Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako Planaren helburu estrategiko** bakoitzaren barruan.

1. helburua: IPPC jardueretarako araudia jarraitasunez betetzea.

Helburu estrategiko honek lotura estua du «IPPC jardueren ikuskapena» izeneko hainbat urtetarako proiektuarekin.

2.2.1.- 01/2016 Proiektua: IPPC jardueren segimendua ikuskatzea

Ikuskapen Zerbitzuaren lehentasunezko proiektuetako bat da. Helburua da EAEn kutsatzeko ahalmen handiena duten jardueren ingurumen-eragina kontrolatzea, bai eta ingurumen-arloko araudia betetzea ere.

2013an, Industriako Emisioen Zuzentaraua Estatuko legedira ekarri zen 16/2002 Legea aldatzen duen 5/2013 Legearen eta geroztik onartutako 815/2013 Errege Dekretuaren bitartez. Horregatik, 2014tik aurrera, aipatutako araudian ezarritakoaren arabera egin dira IPPC jardueren ikuskapenak.

Araudiak ezartzen du ikuskapenaren maiztasunak arrisku-ebaluazioan oinarrituta egon behar duela, eta gutxienez hiru urtekoa izan daitekeela. Arriskuak ebaluatzeko prozedura Ingurumen Sailburuordetzaren webgunean argitaratuta dago², programatutako eta programatu gabeko ikuskapen-prozedurekin batera. 2016. urtean, IPPC instalazio guztien betetze-mailaren ebaluazioa egitea ahalbidetuko duen hiru urteko lehen zikloa amaituko da.

Aurrekoa aintzat hartuta, 2016. urtean arriskuak ebaluatzeko prozeduratik ateratzen diren IPPC enpresak ikuskatuko dira. Talde horren barruan, berariazko jarraipena egingo zaie aurreko administrazio-arloan ahalegin handiagoa behar duten jardueri (arriskuak, araudia betetzea edo inguruaren eragina kontuan hartuta). Gainera,

² <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/informacion/procedimientos-de-inspeccion-ambiental/r49-3252/es/>

urtebeteko epean, IBB lehen aldiz lortzen duten edo ebazpen bidez oinarrizko aldaketa egitea ezarrita daukaten instalazioak ikuskatuko dira.

2016an, honako enpresa hauek ikuskatuko dira: urtebeteko maiztasuna ezarrita daukaten 21 enpresa, bi urteko maiztasuna ezarrita daukaten 25 enpresa, hiru urteko maiztasuna ezarrita daukaten 39 enpresa, arazo zehatzak dituzten 8 enpresa eta aurrez ebaluaziorik egin ez duten 11 enpresa. Orotara, 104 IPPC jarduerari egingo zaie ikuskapen programatua.

Jarduera-sektoreen arabera, honela sailkatu dira 2016an programatutako jarduerak:

IPPC KODEA	JARDUERA SEKTOREA	PROGRAMATUTAKO JARDUEREN KOPURUA
1	Errekuntza-instalazioak	2
2	Metalen ekoizpena eta eraldaketa	40
3	Mineralen industriak	3
4	Kimika-industriak	14
5	Hondakinak kudeatzea	32
6	Zuretik eratorritako industria	2
9	Nekazaritzako elikagaien industria eta abeltzaintzako ustategiak	8
10	Disolbatzaile organikoen kontsumoa	3
	GUZTIRA	104

Helburu espezifikoak eta xedeak

- IPPC enpresek ingurumen-araudiaren betetze-maila hobetzea.
- Desbideratze larritzat eta nabarmentzat sailkatuak zuzentzea sei hilabete baino gutxiagoan eta betetze-maila baxua dutela jotako jarduerak goragoko kategorietara igarotzea urtebetean baino gutxiagoan.
- Herritarrengan edo ingurumenean eragozpenak edo arriskuak sor ditzaketen IPPC jarduerak kontrolatzea.
- IPPC berriei ikuskapena egitea, abian jartzen direnetik edo Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) lortzen dutenetik urtebete igaro baino lehen.

2. helburua: Arrisku handiena duten eta IPPC ez diren jarduerak ingurumen-araudia betetzea.

2.2.2.- 02/2016 Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua

Aurreko urtean ezarritako sistemarekin jarraitzeko, IPPC ez diren eta hasiera batean kutsatzeko ahalmen handia izan dezaketen jarduerak ikuskatzen jarraitzen dute. Hala, aurreikusi da 150 enpresa ikuskatzea. Aldi berean, aurreko ekitaldiko ikuskatzeetatik

ateratako datuak ustiatuko dira, eta jarraipena egingo da eskaera egin duten eta betetze-maila duten enpresa guztietan.

Proiektu hau urte askotakoa da, eta 2014an hasi ziren haren jarduerak. Proiektu honekin lotura duten zenbait jarduera Ikuskapen Zerbitzuko langileek ikuskatuko dute, eta gainerakoetan, Laguntza Teknikoaren babesak izango dute.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- 2015ean ikuskatutako IPPC ez diren 160 enpresatik % 95ek araudiarekiko betetze-maila ertaina, ertain-handia eta handia izatea.
- 2015ean ikuskatu diren eta IPPC ez diren enpresen kopurua % 10era mugatzea, zehazki, aurreko ekitaldian ikuskatutako enpresetan eginiko jarraipenaren ostean betetze-maila moderatuak izan dituzten enpresetan. Ez-betetze horiek gehienbat administrazio-arlokoak dira.
- IPPC ez diren 150 jarduera berri ikuskatzea.

2.2.3.- 03/2016 Proiektua: AKDJk eta ILEak ikuskatzea

Aurreko urteetan lortutako esperientziaren ostean, beharrezkotzat jotzen da Ingurumen Lankidetzarako Erakundeetan (ILE) eginiko jardueren inguruko kontrolarekin jarraitzea –atmosfera igortzen diren emisioen kontrolarekin– eta araudiaren aplikazioaren inguruko ezagutzan sakontzen jarraitzea. ILE batzuek beste batzuei buruz eginiko hainbat kexa jaso izan dira. Kexa horietan, zalantzan jartzen da argibide teknikoaren eta aplikatu beharreko arauen betetze-maila. Urte honetarako, aurreikusi da EAEn emisio gehien izan duten lau ILEetan ikuskapena egitea, baita ikuskatzeko geratu ziren lau ILEetan ere (azken horien jarduketak ez du garrantzi handirik).

Era berean, egiaztatu da, AKDJren araudiaren arabera, jarduera-kopuru handia legeztatuko dela. 2015ean, Eustaten eta Industria Sailaren hainbat datu-basetan bilaketak eta azterketak egin dira legeztatzea daitezkeen jardueren zerrenda egiteko, eta, ondoren, ikuskapenaren bidez, legeztatzea eskatzeko, hala badagokio.

Helburu espezifikoak eta xedeak

ILEak

- ILEek fokuen neurketarako ezarritako araudia betetzen dutela ziurtatzea.
- EAEn erregistratuta dauden ILE guztiek modu berean jarduten dutela ziurtatzea eta kasu guztietan aplikatzekoak diren Argibide Teknikoak betetzen direla.
- ILEak ohartzea beren lana ikuskatu egiten dutela eta Administrazioak ikuskatzeko aukera duela.
- Ingurumen Sailburuordetzako teknikariek neurtzeko arau eta argibide teknikoaren aplikazioaren inguruan duten ezagutza handitzea. Ikuskatzeko gida eta fitxa tekniko lagungarriak egitea.

AKDJak

- AKDJ araudia bete dezaketen jarduerak identifikatzea.
- AKDJ araudia bete behar duten jarduerak ikuskatzeko programa egitea.

4. helburua: Hondakin eta lurzoruen araudia betetzea.

Aurreko urteetako esperientzia lagungarria izan da helburu honekin loturiko proiektuekin zer ildori jarraitu definitzeko. Hala, aurtengo urterako lau proiektu aurreikusi dira: hondakin mota ezberdinak kudeatzeko kontrola, hondakinak lekuz aldatzea, zepa siderurgikoak kudeatzeko berariazko proiektua (dagoeneko 2015eko programan aurreikusita), eta, azkenik, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako jarduera baimenduak ezartzea. Lehen proiektuan, honako hauek egitea aurreikusi da: erabiltzen ez diren ibilgailuen kudeaketari buruzko kontrola, enpresa zatikatzaileetan sartzen diren hondakinak kudeatzea eta obra eta betelan handien hondakinen kudeaketa ikuskatzen jarraitzea. Bigarren proiektuaren helburua da 660/2014 EB Erregelamenduak ezartzen duen ingurumen-ikuskapenerako plana amaitzea eta portura eramandako hondakin batzuk ikuskatzen hastea. Hirugarren proiektuan, ustiatu egingo dira ekoizleen eta zepa-balioztatzaileen aurreko urteko ikuskatzeetan lortutako datuak, eta hainbat jarduera egingo dira baimendutako kudeaketa eta erabileretara bideratzen direla ziurtatzeko. Laugarren proiektuari dagokionez, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako eremuetako jarduerak ikuskatzen hasiko dira.

2.2.4.- 04/2016 Proiektua: Hondakinen kudeaketa kontrolatzea

Proiektu hau kanpaina espezifikoen bidez gauzatuko da, jarraian zehaztuko diren helburuekin eta jomugekin lotuta.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Erabiltzen ez diren ibilgailuekin loturik, baimenduta ez dauden kudeaketa-guneak identifikatzea, eta, legeztatzen ez diren arte, horiek geraraztea.
- Hondakinak onartzeari buruzko baimenen baldintza garrantzitsuenak Euskal Autonomia Erkidegoko zatikatzaile guztiek betetzen dituztela ziurtatzea.
- Obra handietan eta ikuskapen-jardueretan eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen kudeaketa eta baimendu gabeko erabilerak identifikatzea, ondoren kontrolatzeko.
- Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeatzaileek hartu beharreko neurriak ikuskatzea, 110/2015 Errege Dekretura egokitzeko.

2.2.5.- 2016/05 proiektua – Hondakinak lekuz aldatzea

EB 660/2014 Erregelamenduak ezartzen du Ingurumena Ikuskatzeko Plan bat onartuta izan behar dela 2017ko urtarrilaren 1erako, eta planak izan behar dituen zenbait baldintza ezartzen ditu.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Mugaz bestaldera lekualdaketak egiteko ikuskaritza-plana egitea eta onestea.
- Ikuskaritza-prozedura egitea.
- Arriskuak ebaluatzeko metodologia ezartzea.
- Mugaz bestaldeko lekualdatzeak ikuskatzen hastea.

2.2.6.- 2016/06 proiektua - Zepa siderurgikoak kudeatzea.

Balioztatutako zepen kudeaketa eta erabilera erregulatuta daude Euskadin hondakinen araudi orokorraren bidez eta 34/2003 Dekretuaren bidez.

2015. urtean, zepa beltz, gris eta zurien hondakinak sortzeko eta kudeatzeko/balioztatzeko jarduerak ikuskatzen hasi ziren. Ikuskatze horien ondorio gisa, datu garrantzitsuak lortu dira lehen balorazioa egitea ahalbidetu duen jarduera horren inguruan.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Zepa siderurgikoak eta metalurgikoak balioztatzeko bide baimenduetara doazela egiaztatzea, eta, halakorik ezean, ezabatu egiten direla.
- Ziurtatzea zepa-ekoizle guztiek baimendutako kudeatzaileari ematen diotela hondakina, balioztatzeko aukerari lehentasuna emanez.
- Zeparen balioztatzaileek lehengoratutako produktua baimendu den erabilerarako baliatzen dutela egiaztatzea.
- Zepa eliminatzen duten kudeatzaileek aplikatu beharreko araudia betetzen dutela ziurtatzea.

2.2.7.- 2016/07 proiektua – Lurzoruak: jarduerak ikuskatzea kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten edo jasaten dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako eremuetan.

Lurzoruaren kutsadura prebenitzearen eta kutsatutakoa garbitzearen alorrean ³indarrean dagoen araudiak administrazio-prozedurak ezartzen ditu kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako ⁴eremuetan jarduerak kontrolatzeko.

Inbentarioan jasotako eremuen jarduerak ikuskatzeko proiektua aurten hasiko da, eta, beraz, helburua da prozedurak definitzea eta lehen ikuskatzeak egitea araudiaren eta baimenen betetze-maila ebaluatzeko.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Inbentarioaren barruko jarduerak ikuskatzeko prozedurak ezartzea eta alderatzea.
- Sistema bat prestatzea inbentario barruko lurzoruan baimendu gabeko jarduerak identifikatzeko.

³ 4/2015 LEGEA, ekainaren 25ekoa, lurzoruen kutsadura prebenitzekoa eta zuzentzekoa.

⁴ 165/2008 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.

- Hamar eremu ikuskatzea baimendutako jarduerak betetzen direla bermatzeko.

5. helburua: Ingurumen-arloko arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea

Planaren helburu estrategiko hau Ikuskapen Zerbitzuaren emaitzak lortzea xede duen kudeaketara ondoen egokitzen diren helburuetako bat da, batez ere industria-jarduerak ingurumen-arloko arazoak konpontzen laguntzen duten kasuetan (kontuan hartuta gizarte- eta ingurumen-arloko gatazkak). Urte batzuk badira jada hurbilpen horrekin lan egiten ari dela, eta emaitza onak lortzen ari da. 2016rako, aurreko urteetan hasitako edo proposatutako proiektu batzuekin jarraitzen dute.

Jarraian, helburu estrategiko honekin loturiko proiektuetarako helburu espezifikoak eta jomugak zehazten dira:

2.2.8.- 08/2016 Proiektua: 2.9.- Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean

Azken urteetako egoera sozioekonomikoak eragin du enpresa askok jarduera bertan behera utzi beharra. Kasu gehienetan, lehiaketa bidezko prozeduren bidez egin da, ekoizpen-instalazioetan lehengaiak eta hondakinak modu ordenatuan kudeatzeko prozedura gauzatu gabe. 2015ean proiektu horretan eginiko jarduerak ez dute arrakasta bera izan, hainbat motatako kasuak baitaude.

Hori dela eta, egoera aintzat hartuta, asmoa da lan egiteko modua ezartzea, etenaldi horiek goiz identifikatu eta, ahal den neurrian, jarduera eten ondoren materialak edo hondakinak biltegiatzearen ondorioz arriskuen kontrolean esku hartzeko. Hala, jardueren arduradunek aukera gehiago izango dute ingurumen-arloko betebeharrak beren gain hartzeko.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Administrazioaren esku-hartzea neurri egokiak hartze aldera aurreko urteetan ikuskatutako eta arrisku handikotzat sailkatutako jardueretan arriskuak kontrolatzeko.
- Jarduera eten ondoren instalazioetan geratzen diren hondakinak eta materialak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea.
- Sistema bat ezartzea joan den urtetik geratuta dauden etendako jarduerari konponbidea bilatzeko.
- Jarduera eteteko prozesuak abiarazten dituzten jarduerak goiz identifikatzeko eta horietan esku hartzeko prozedurak hobetzea.

2.2.9.- 2016/09 proiektua: Pasaiaiko Badiaren leheneratzea sustatzea

Eusko Jaurlaritzaren Programak Pasaiaiko Badiaren leheneratzea sustatzea aurreikusten du sailerako helburuen artean. Proiektu hori Gobernuaren helburu horretan sartzen da, eta erakundeen arteko ekintza-plan bat gauzatzeko aurreikusten du. Plan horretan

hauek parte hartuko dute: Ingurumen Sailburuordetzak, Donostiako, Pasaiaiko, Lezoko eta Errenteriako udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Portu Agintaritzak.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Airearen kalitate- eta zarata-maila onargarriak izatea portu-inguruetan, bai eta badiako uren kalitatean ere.
- Airearen kalitatearen eta zarataren arloan herritarrei eragiten zaizkien eragozpenak sortzen dituzten gertaerak kontrolatzea, bai eta badiara egiten diren isurketena ere.
- Administrazio guztiekin modu koordinatuan jardutea, sortutako mahaiaren bidez.
- Pasaiaiko Badiaren egoerari buruzko txostenean ikusitako ekintzak betetzea.

7. helburua: Abisuak (kexak, salaketak, gorabeherak...) eta programatu gabeko ikuskapenak kudeatzea.

Helburu estrategiko horretarako, hainbat urtetako proiektua ezarri da. Proiektuaren garapena ingurumenari buruzko abisu edo larrialdien kasuan 24 orduz arreta edo erantzuna ziurtatzera zuzenduta dago. Horretarako, bi laguntza teknikoren sostengua izango da aurrerantzean ere: biek txandaka egingo dute lan, bitarteko eta baliabide egokiak izan ditzaten abisuei erantzuteko eta, behar izanez gero, berorietan sortutako hondakinak kudeatzeko. Jardungo duten Laguntza Zerbitzuak lehen mailako ILEtzat joko dira, Administrazioak kontratutako jarduketarako 212/2012 Dekretuaren arabera.

2.2.10.- 2016/10 proiektua: Programatu gabeko abisuak eta ikuskatzeak kudeatzea

Salaketetatik eratorritako abisuen, SOS-DEIAK abisuen, gertakarien, istripuen eta abarren erantzuna geroz eta garrantzitsuagoa da araudiaren betetze-maila areagotzen doan heinean; izan ere, normala ez den funtzionamendu-egoeretatik eratorritako ingurumen-afektazioak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen hasi dira.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Urteko 365 egunetan, 24 orduz, ingurumenari buruzko abisuen erantzun eraginkorra kudeatzea.
- Abisuak sartzeko bideak, kudeaketa-prozedurak eta egindako jardueren dokumentazioa hobetzea, horiek aldeztu aurretik aztertu ondoren.
- Ikuskapen-zerbitzuak larrialdien eta taktika operatiboen planetarako erantzuna antolatzea.
- Abisuetan esku hartzen duten sailekin koordinazioa hobetzea.

9. helburua: Ikuskapen-ahalmena handitzea.

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuaren galga nagusia proiektuak egikaritzeko eskura dituen giza baliabide mugatuak dira. Hala ere, garrantzitsuena da eragin biderkatzailea sortzea, ikuskapen-ahalmena optimizatzeko. Horretarako, eskura dauden giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala kudeatuko dira, eta Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak ikuskapenaren osagarri eta laguntza gisa erabiliko dira.

Ondoren azaltzen dira eremu honetako zenbait jarduera-ildo:

- Ikuskapen Zerbitzuko jakinarazpen eta komunikazioetan teletramitazioa probatzea eta martxan jartzea.
- Aire Kalitatearen Zaintza eta Kontrol Sarearen baliabideetan laguntzea, airearen kalitatearekin eta emisioekin loturiko egoeren analisia karakterizatzeko. GC/MSek detektatutako osagai organikoak interpretatzeko irizpideak ezartzea.
- Ikuskapen Zerbitzuko teknikariaren lana sistematizatzea eta harmonizatzea, prozesuaren kudeaketan kalitate-irizpideak mantentzearen bidez.

10. helburua: Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea.

Helburu honen xedea da Ikuskapen Zerbitzuko jarduerak egokitzea estatuko nahiz Europako testuinguruari, ikuskapenarekin lotutako fase guztietan parte hartzeko; besteak beste, araudia egiteko irizpideetan eta ikuskapenak egiteari dagozkionetan. Horretarako, elkarrekin lan egiteko eta informazioa trukatzeko foroak daude, non Ikuskapen Zerbitzua partaide den eta parte-hartze aktiboa duen, hala nola REDIA, ingurumen-ikuskapen agintaritzen sarea (autonomia-erkidegoak eta Ministerioa) eta IMPEL (Europako Esparru Ekonomikoko estatuak; Europar Batasuna, batik bat).

3. GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.

2016. urtean, Ikuskapen Zerbitzuan aurreko urtean zeukaten egiturekin jarraituko dute. Honako hauek egongo dira: zerbitzuburu bat, 8 ikuskari tekniko, aholkularitza juridikoa eta laguntza administratiboa. Bi ikuskari tekniko Bizkaiko Lurralde Historikoan daude (Bilbon dute bulegoa), eta beste bi Gipuzkoako Lurralde Historikoan (Donostian dute bulegoa).

Programatutako jarduerak dauden baliabideetara egokituta daude, eta aurreikusita dago ingurumen-ikuskatzaileen prestakuntzan eta profesionalizazioan aurrera egitea, zehazten diren planen arabera, betiere egiten diren lanetarako gaitasun teknikoa ziurtatzeko xedez.

Ikuskapen-programaren helburuak betetzeko estrategia gisa, eta 2011-2018ko Ingurumen Ikuspenerako eta Kontrolerako Planetik ateratako zuzentarauekin bat etorritik, aurreikusi da kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea 2016. urteko ikuskapen-programan sartutako jarduera batzuk egiteko laguntza gisa.

4. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.

Sistema horren bidez, asmoa da oinarrizko informazioa sortzea eta tratatzea ikuskapenak antolatzeke eta programatzeko (zerrendak, legeztatu gabekoak identifikatzea...)

2015. urtean, aurrerapenak egin dira informazioa digitalizatzen. Gaur egun, Ikuskapen Zerbitzuko informazio osoa euskarri digitalean eskura daiteke eta ikuskapenetarako aplikazio informatiko espezifiko baten bidez kudeatzen da. Gainera, beste administrazio-unitate batzuekin lan egin da, zerbitzuen dokumentu-mapak koordinatzeko eta horiek Eusko Jaurlaritzaren irizpide orokorrekin ezartzeko.

Arlo horretako 2016rako jarduerak oinarri hau izango dute:

- Sailburuordetzako beste administrazio-unitate batzuen informaziorako sarbidea hobetzea, eta, aldi berean, beste unitate batzuei erraztea ikuskapenaren arloko informazioa eskuratzea.
- Jendaurrean jartzea ikuskapenen arloko programak, memoriak eta txostenak, Eusko Jaurlaritzaren webgune ofizialaren bidez.

5. KONTROL-PLANA.

2015. urtearen amaieran, hainbat jardueraren ondorioz atmosferara igortzen diren emisioen eta zaraten fokiak kontrolatzeko plana egin zen, kontrol-gune horiei buruz Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztutako emaitzak alderatzeko. Txostenak aztertu ondoren lortzen diren emaitzak ikusita, hasitako planarekin jarraituko duten erabakiko dute.

6. INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.

2011-2018 aldirako Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planean adierazten den bezala, beharrezkoa da ikuskapenaren lege-esparru eguneratua edukitzea, ikuskapen- eta kontrol-antolakuntzaren araudia garatzea, eta ingurumen-diziplina aplikatzea, ikuskapenetatik eratorritako espedientei dagokienez.

7. INGURUMEN-IKUSKAPENERAKO ETA -KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.

Proiektuetako bakoitzean egikaritze-kontrolerako adierazle batzuk ezarriko dira, eta proiektuen jarraipena egitea ahalbidetuko dute. Oinarrizko irizpide gisa, aurten proiektuen segimendua gutxienez sei hilean behin egitea planteatu da.

Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programa hau guztiz garatzeko. Horregatik, lehentasun handieneko proiektuekin hastea proposatu da, gainerakoak baliabideen arabera aurrera eramateko.

Barneko segimenduak Programaren egikaritzea doitu joatea ahalbidetuko du, ingurumenaren aldetik garrantzi edo arrisku handiena dutenei lehentasuna emanez. Segimendu hori Ingurumen Sailburuordetzaren bileren bitartez egingo da; bilera horietan, zuzendaritza-taldeak eta Sailburuordetzako zerbitzu teknikoetako langileek parte hartuko dute.